

# Ikusten al nauzu?

Lehen Hezkuntza 1 . maila

# Irakaslearentzako ikas-egoeren gida

**Inplikaturiko ikasgaiak:**

Euskara eta literatura eta natura, gizarte eta kultura inguruaren ezagutza

**Saio kopurua: 20**

**Ikas-egoeraren markoa:**

**A. Testuingurua:**

Aurreko ikas egoera gorputzaren ingurukoa izan zen. Ume askok zentzumen gainerako jakimnina izan zuten. Zer dira zentzumenak? Zertarako balio dute? Zertan laguntzen gaituzte?

**B. Abiapuntua:**

Hasteko, jarduera praktiko labur bat egin daiteke, hala nola eskolako patioan edo inguruko parke batean ibilaldi bat egitea, ikasleek hainbat elementu natural ikusi eta bildu ahal izateko, hala nola hostoak, harriak, loreak, etab. Ibilaldian zehar, beren inguruneari arreta jartzera eta ikusten dutenari buruzko galderak egitera animatzen dira.

Abiapuntu horrekin, ikasleak hasieratik sartzen dira naturaren gaian, jakin-mina pizten zaie eta motibazio-giroa sortzen da esplorazioari eta ikaskuntzari ekiteko.

**C. Azken ekoizpena:** Zentzumenen triviala sortzea.

**Proposamenaren justifikazioa:**

**A. Proposamenaren xedea:**

Haurrek zentzumenak zein diren eta zentzuek duten balioa zein den jakin dezaten lortu nahi da.

**B. Argudiaketa kurrikularra:**

Proiektu honek aukera desberdinak ematen ditu curriculumenean agertzen diren konpetentziak garatzeko. Irteera-profilean dauden deskriptore anitzekin lotura du, oinarrizko konpetentzia hauek garatzeko: kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentzia;
ekintzailetza-konpetentzia; matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia; konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa; eta herritartasunerako konpetentzia.

**C. Helburu didaktikoak:**

1. **Zentzumenak (ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena) izendatu eta deskribatu eta inguratzen dituen munduaren pertzepzioan**

duten oinarrizko funtzioa ulertu.

2. **Bost zentzumenetako bakoitzari (begiak, belarriak, sudurra, ahoa eta azala) lotutako zentzumen-organoak identifikatu eta giza gorputzean duten kokapena eta funtzioa ulertu.**
3. **Zentzumenek inguratzen dituen mundua hautemateko, besteekin komunikatzeko eta beren ingurunean seguru egoteko duten garrantzia ulertu.**
4. **Zentzumenekin lotutako ikusmen-, entzumen-, usaimen-, dastamen- eta ukimen-sentsazioak deskribatzeko hiztegi berria ikasi.**
5. **Ikasleek talde lanean aritu zentzumen-jarduerak egiteko, beren esperientziak partekatuz eta zentzumenak esploratzen lagunduz.**

HIZKUNTZA -KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)

KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARAKO

KONPETENTZIA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

KONPETENTZIA DIGITALA (KD)

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)

HERRITARTASUN KONPETENTZIA (HK)

EKINTZAILETZA- KONPETENTZIA (EK)

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)

## Argudiaketa kurrikularra:

| arloa: NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA LH I | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Funts. Konp.** | **Deskr. Opera.** | **Konpetentzia espezifikoak** | **Ebalu. Irizp.** | **Oinarrizko jakintzak** |
| HKK | 2,4,5 | | | <u>**A: Kultura zientifikoa**</u><br><br>**1. Jarduera zientifikorako hastapenak**<br><br>● Ikerlanaren berezko estrategiak, jakin-minarekin eta norberaren **lanerako ekimenarekin lotutako ohiturak eta jarrerak** garatzen laguntzen dutenak, bai bakarka, bai taldean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.*<br>● **Oinarrizko hiztegi zientifikoa**, behaketak eta neurketak egiteko tresna eta gailu egokiak, ikerketen beharren arabera.*<br><br>**2. Bizitza gure planetan**<br><br>● Izaki bizidunen egokitzapenak beren **habitat**era, beren beharrak asetzen dituzten leku gisa ulertuta.*<br>● Gizakiaren ongizate fisikoarekin lotutako **ohitura osasungarriak**: higienea, elikadura askotarikoa eta orekatua, ariketa fisikoa, atsedena eta gorputzaren zaintza, gaixotasunei aurrea hartzeko bitarteko gisa.* |
| KE<br><br>STEM<br><br>KD | 1,2<br><br>1,3,4<br><br>3 | 2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilita, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturalean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko. | 2.2. Gertuko objektu, gertakari eta fenomenoei buruzko jakin-mina erakustea, hipotesiak formulatuz eta informazioa eta emaitzak egindako iragarpenekin alderatuz.<br><br>2.3. Ikerketak hala eskatzen duenean, agindutako edo gidatutako esperimentuetan parte hartzea, hainbat ikerketa-teknika erraz erabiliz.<br><br>2.5. Ikerketa txikien emaitza ahoz edo grafikoki komunikatzea, lexiko zientifiko egokia erabilita, egindako urratsak laguntzaz azalduta eta ezagutza modu kooperatiboan partekatuta. | |
| KPSII<br><br>EK | 2,3,5<br><br>1 | 3. Arazo-egoerak diziplina arteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko. | 3.1 Ingurune hurbileko beharrak identifikatzea edo arazoak antzematea, diziplinarteko proiektu kooperatibo errazetan parte hartuz, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz eta prototipoak sortuz<br><br>3.3. Diseinu-arazo bati irtenbidea emango dion amaierako produktu erraz bat taldean eta modu gidatuan diseinatzea, hainbat prototipo probatuz eta erreminta eta material egokiak modu seguruan erabiliz.<br><br>3.4. Ahoz edo grafikoki diseinu-proiektuen azken produktua erakustea, eta laguntzarekin (gidoi bat, eskema bat, grafikoa...), eman dituen urratsak zeintzuk diren azaltzea. | |

| arloa: EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Konpetentzia espezifikoak** | **Ebalu. Irizp.** | **Oinarrizko jakintzak** |
| | | | | |
| | | 2. **Ahozko testuak** eta testu multimodalak **ulertzea eta interpretatzea**, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-premiei erantzuteko. | 2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzu orokorra ulertzea, ideia nagusiak eta mezu esplizituak ezagutuz eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarrizkoenak laguntzarekin baloratzen hasiz.<br><br>. | <u>**B. Komunikazioa**</u><br>**1. Hizkuntzaren erabilera**<br>● *Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.<br>● ***Edukiko** (gaiak, formula finkoak, lexikoa) **eta formako** (egitura, formatua, irudiak) **oinarrizko elementuak**.<br>● Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.<br><br>**2. Ahozko ulermena, komunikazioa eta elkarrekintza**<br>● *Ikasgelako egoeretan ahozko-elkarrekintza egokia. Hizkuntza-kortesiazko oinarrizko estrategiak eta norberaren hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioko estrategiak.<br>● ***Entzute aktibo**ko estrategiak, gatazkak elkarrizketa bidez ebazteko prozesuan.<br>● *Ezagutzaren eraikuntza eta komunikazioa, **ahozko testu** eta testu multimodal errazak laguntzarekin **planifikat**zearen eta **produzit**zearen bidez.<br><br>**3. Irakurmena**<br>● *Idatzizko kodearen konbentzioak, gizarte-erabilerako testuak ulertzeko proposamenen esparruan.<br>● ***Banakako irakurketa** eta **irakurketa partekatua eta adierazkorra**, maila kognitiborako egokiak diren intonazioarekin eta erritmoarekin. |
| | | | | |
| | | 4. **Testu idatzi** eta multimodalak **ulertzea eta interpretatzea**, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak<br>eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitzeko eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteko. | 4.1 Testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta ulertzeko oinarrizko estrategiak laguntzarekin erabiliz. | |
| | | | . | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | 10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetza demokratikoaren zerbitzura jartzea, **hizkuntza ezdiskriminatzailea eta inklusiboa** erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanez eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko. | 10.2 Entzute aktiborako eta adostasunerako oinarrizko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketan hasiz. | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | **4. Idatzizko produkzioa**<br>● *Idatziz argi eta egoki adierazteko **interesa**.<br>● *Idatzizko produkzioen **aurkezpen zaindua**.<br>● *Testuaren koherentziarako oinarrizko estrategiak.<br>● ***Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko tresnak**, zenbait euskarritan (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...) |

**Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio adierazleak (irakasleentzako):**

**A. Hasierako fasea:**

| Jarduera | Ebaluazio-adierazleak | Ebaluazio-tresnak |
| --- | --- | --- |
| 1. **Motibazioa eta ikasleen interesekiko lotura.**<br>- Txangoa herritik<br>-Gaiari sarrera emateko argazki batzuk ikusiko ditugu eta ondoren hausnarketa bideratuko da.<br>-Gure txokoa sortzen hasiko gara . zentzumenak argazkiak | 1.1.Gaiari buruzko interesa eta motibazioa erakutsi ditu.<br>1.2.Gizarte trebetasunetan hobekuntza erakusten du. | Ikusi-pentsatu-galdetu<br><br>Gure txokoa erregistroa<br><br>Parte hartzea eta sozializazioa |
| 2. Aurrezagutzak:<br>- Abestiak:<br>- Txiki txikia abestia (letra)<br>- Hilabeteen abestia zeinu hizkuntzan | 2.1.Aurrezagutzak aktibatu ditu. | |
| 3.**Proposamena ikasleei aurkeztea eta helburuak adostea.** | 3.1.Jarraituko ditugun pausuak identifikatzen ditu. | Infografiari buruzko galderak |

**B. Garapen-fasea (errenkan ala taulan):**

| Jarduera | Ebaluazio-adierazleak | Ebaluazio-tresnak |
| --- | --- | --- |
| 4. Hipotesiak egiten(hipotesien fitxa) | 4. Hipotesiak formulatu ditu | Hipotesien fitxa |
| 5. Bost zentzumenen deskribapena (17. orrialdea) | 5. Zentzumen bakoitza bere organoarekin lotzen du | Fitxa bera |
| 6. Ikusmena zentzumenaren sakontzea (18, 19 eta 20 orrialdeak) | 6. Ikusmenarekin antzematen diren ezaugarriak ezagutzen ditu. | 1.ariketa(18.orrialdea) |
| 7. Entzumenaren zentzumenaren sakontzea (21, 22 eta 23 orrialdeak) | 7. Entzumarekin antzematen diren ezaugarriak ezagutzen ditu. | 1.ariketa (21.orrialdea) |

| | | |
|---|---|---|
| 8. Usaimenaren zentzumenaren sakontzea (24 eta 25 orrialdeak) | 8.Usaimenarekin antzematen diren ezaugarriak ezagutzen ditu | 1.ariketa (26.orrialdea) |
| 9. Ukimena zentzumenaren sakontzea (26 eta 27 orrialdeak) | 9.Ukimenarekin antzematen diren ezaugarriak ezagutzen ditu | 1.ariketa (26.orrialdea) |
| 10. Dastamena zentzumenaren sakontzea (28 orrialdeak) | 10..Dastamenarekin antzematen diren ezaugarriak ezagutzen ditu | 1.ariketa (28. orrialdea) |
| 11. Zentzumenekin lotutako testuak (10, 12,14 orrialdeak) | 11.Galderen erantzunak koherenteak dira | Fitxak |
| 12. Esperimentua eta ondorioak atera adibidea | 12. Emaitzak egindako hipotesiarekin alderatu ditu | Irakaslearen behaketa eta erregistroa |
| 13. Errepasoa (29 orrialdeak) | 13..Erantzun egokiak aukeratu ditu | 1Ariketa |

**C. Azken fasea (errenkan ala taulan):**

| Jarduera | Ebaluazio-adierazleak | Ebaluazio-tresnak |
|---|---|---|
| 14. Canvaren aurkezpena birgogoratu | 14.Jarraituko ditugun pausuak identifikatzen ditu. | Infografiari buruzko galderak |
| 15. Galderen erantzunen bila | 15.1.Elkar lanean lan egiten du.<br>15.2.Besteen iritziak errespetatu eta aintzat hartzen ditu.<br>15.3.Oinarrizko ortografia eta gramatika arauak errespetatzen ditu.<br>15.4.Proposatu dituzten erantzunak gaiarekin lotura zuzena dute.<br>15.5.Erantzun zuzena proposamenen artean dago. | Talde lana autoebaluazioa<br><br>Behaketa zuzena eta irakaslearen erregistroa<br><br>Ikasleek sortutako erantzun txartelen zirriborroa<br><br>Jolasteko behar ditugun txartelak |
| 16. Txartelak sortzen | 16.1.Egindako lana txukuna da<br>16.2.Zirriborrotik ondo kopiatu du.<br>16.3.Letra ulergarria | |

| | | |
|---|---|---|
| | erabili du | |
| 17. Goazen jolastera | 17.1.Txandak errespetatzen ditu<br>17.2.Jolasaren arauak ezagutzen ditu.<br>17.3.Ikasitakoa erabili du. | Errubrika |

**Metodologia:**

**A. Printzipioak (IDU, modelo pedagogikoa…):**

6. Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrikotik eta androzentrikotik. Modu pertsonalizatuan egokituko zaio ikasle guztien eboluzio -uneari eta ikaskuntza- erritmo pertsonalari.

7.-Hezkuntza-praktika prestakuntza-eredu kolaboratiboan oinarrituko da, dinamika globalizatuak eta kooperatiboak bultzatzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan.
Ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietarantz joko da.
Era berean, ikaslea bere ikaskuntzaren motor izango den kultura sustatuko da.

8.-Oinarrizko Hezkuntzak ikuspegi humanistatik prestatuko ditu ikasleak jakintzak eta balioak bereganatzeko, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa eraiki dadin.
Horretarako, alderdi kognitiboak, emozionalak eta etikoak uztartu beharko dira.

**B. Antolakuntza:**

Ebaluazio hezigarria aurrera eramango da bere fase guztietan: hasierako ebaluazioa egiteko tresnak erabiliko dira, bai ikasleek eraikuntzaren inguruan dakitena agerian jartzeko.
Ebaluazio- irizpideak ikasleekin partekatuko dira, eta azken produktuen errubrikak edota kontrol-zerrendak era kolaboratiboan eraikiko dira.
Prozesuan zehar, ikasleek feed- back edo atzeraelikadura emango dizkiote elkarri eta irakaslearena ere jasoko dute. Bukaeran, autoebaluazio -eta koebaluazio- prozesuak jarriko dira martxan; proiektuan zehar, metakognizioa bultzatzeko jarduerak planteatuko dira

**C. Baliabideak:**

**Ebaluazio-prozesua:**

Ebaluazio hezigarria aurrera eramango da bere fase guztietan: hasierako ebaluazioa egiteko tresnak erabiliko dira, bai ikasleek eraikuntzaren inguruan dakitena agerian jartzeko.

Ebaluazio- irizpideak ikasleekin partekatuko dira, eta azken produktuen errubrikak edota kontrol-zerrendak era kolaboratiboan eraikiko dira.

Prozesuan zehar, ikasleek feed- back edo atzeraelikadura emango dizkiote elkarri eta irakaslearena ere jasoko dute. Bukaeran, autoebaluazio

-eta koebaluazio- prozesuak jarriko dira martxan; proiektuan zehar, metakognizioa bultzatzeko jarduerak planteatuko dira